

SARRERA

Dokumentu politiko honen bitartez, BATASUNAK buruturiko hausnarketaren ondorioak jakinarazi nahi ditu, gure herriaren oraina eta geroari begira une bereziki garrantzitsua bizi dugun honetan.

Une hau ez da ulertzen, ordea, azken 25 urteotako ibilbidea aztertu gabe. Dokumentu honetan ibilbide osoa egin eta egungo egoeraren inguruan hainbat ondorio bildu ditugu.

Egindako azterketa honetatik, BATASUNAK, ezker abertzalearen espresio publiko eta anitzak, lehenetsun bat markatu du: bake prozesuaren eraikuntza, konfrontazio politiko eta armatuaren eszenatokia behin betikoz gainditzeko gure herrian.

BATASUNAK, beraz, bere gain hartzen du Euskal Herrira bake iraunkorra ekarri beharko lukeen prozesua abian jarri eta egonkortzeko ardura.

1.- BALANTZE POLITIKOA (1977-2004)

1.1.- Ukazioa, inposaketa eta zatiketa

Eremu politiko eta administratibo ezberdinetan zatiturik eta urturik, Euskal Herria herri ukatua da, luzaz ukatua, izan ere.

Iraultza frantsesaz geroztik aldarrikatu dugu euskaldunok Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoaren onarpen instituzionala, eta denbora tarte berbera egin du Estatu jakobinoak Euskal Herria ukatzen eta mespretxatzen.

Gainontzeko lau herrialdeetan, frankismoaren oinordekoek bere buruari segida eman eta marko konstituzionala eta autonomikoa marraztu zuten. Konstituzioa gure herriaren borondatearen aurka jarri zuten indarrean; Nafarroako Foru Hobekuntza ez zen bozkatu ere egin; eta Estatutua oso babes txikiarekin pasarazi zuten, betiere “hau ala ezer ez” mehatxupean.

Ezker abertzaleak ezezko biribila eman zion inposaketari, herri gisa ukatu eta zatitu egiten bait gintuen. Eta eguneroko lanean eta borrokan oinarritutako bideari ekin zion, beste guztiek bere amaiera edo heriotza politikoa iragartzen bazuten ere.

Frankismoaren erreformaren lehen urteak oso gogorrak izan ziren. Haatik, ezker abertzaleak, borroka egiteaz eta erresistentziarako indarra erakusteaz gain, gatazkaren konponbideari ere bide eman nahi izan zion, KAS Alternatiba eta Aljerreko elkarrizketak lekuko.

1.2.- 1992ko krisialdia.Negoiazio estrategiaren agorpena

Orain dela hamar urte krisi garaiak jo zuen ezker abertzalea, batez ere, Estatuarekin negoziatzeko estrategia blokeatu zelako. Aljerreko negoziazioen hausturaren ondotik, nahasmena zen nagusi. Estatu espainolak egoera hori aprobetxatu nahi izan zuen eta, negoziazio saiakerekin mozorrotutako azpijoko eta amarruen bitartez, ezker abertzalearen zatiketa eta porrotaren – politikoa zein poliziala– bila aritu zen.

Garai hartan, Estatu espainolak, PSOEk kudeaturik, Ardanza buru zuen Gobernu autonomikoaren babesari, laguntza eta aholkua zuen. Ordurako, Ajuria Eneko Hitzarmenaren itzalpean, polizi kontraerasorako Estatuak behar zuen babesari –politika zein gizarte arlokoa– sendotasuna emana zion EAJk.

Horrelaxe ekin zieten presoan sakabanaketari, Herri Batasunaren kontrako etenik gabeko jazarpenari, hedabideetako bazterketari, Bidarteko sarekadari... Dena zen zilegi ezker abertzalea birrintzeko.

1.3.- Ezker abertzalearen berrantolatze estrategikoa. Oinarrizko erabakiak (1994)

Ez Estatu espainoleko estrategiek ez Sabin Etxeko zein Ajuria Eneko laguntzaileek ez zuten, ordea, ezker abertzalearen gaitasuna –berrantolatze taktikoa eta estrategikoa egiteko– aurrikusi.

Izan ere, zalantza eta kupidarik gabeko errepresio gehitze garai hartan, ezker abertzale osoa gai izan zen denbora hartu eta eztabaidatzeko, elkarrekin estrategia politikoa sakon berritzeko.

Oztopoak begi bistakoak izan arren, ezker abertzaleak bere buruarekin konfidantza zuen, herri sektore askoren artean independentziaren alde ezkerreko proiektua errotzea lortua baitzuen, zintzo eta serio, aurreko urteetako borrokari esker. Honela, bere estrategia Euskal Herriko eta Estatu espainoleko zein frantseseko errealitate berriari egokitzen saiatu zen.

Orduko strategiaren berrantolatze hiru erabaki nagusi izan ziren oinarri:

a.- Zatiketak baldintzatutako estrategien ordean (lehendabizi Hego Euskal Herria eta ondoren Ipar Euskal Herria), nazio mailako estrategia –aldi berean, errealitate ezberdinak kontuan hartuko lituzkeena– osatzeko apustua egin zen, argi eta garbi.

Erabaki haren ondorioz, denborak aurrera egin ahala, ezker abertzalea eta beronen antolakundeak nazio antolakunde bilakatu ziren. Horrenbestez, militantzia egitura Euskal Herriko lurralde guztietara zabaltzen zen eguneroko lanean.

b.- Egoera goitik behera aldatuko zukeen ETArekin eta Estatu espainolaren arteko negoziarioaren ondoko egun amestuaren zain egon ordean, egunero-egunero Euskal Herria eraikitzearen estrategia erdietsi zen. Nazio eraikitzearen estrategia arlo estrategikoetan eguneroko lan militantea ahalbidetzea zuen helburu; alde batetik, estatuen politikaren ondorio gogorak (desindustrializazioa, euskararen eta hezkuntzaren egoera...) arintzeko, eta bestetik, autonomi markoaren muga juridikoak eta politikoak gure herriari argi bezain garbi azalarazteko.

Markoa gaitzetzeko proposamena ez zen jolasa, ezta goi mailako politikari lotutako ariketa hutsala ere. Euskal Herriaren biziraupena bera zegoen jokoan.

Euskarak, ekonomiak, hezkuntza egiturak, hedabideak... beste marko politiko bat behar zuten. Alor horietan lanean ari ziren herri sektoreei beharra ikustaraztea zuen ezker abertzaleak helburu; oharteraztea zatiketa eta burujabetza falta gaitzetzeko zela bide bakarra kultura bereziko nazio erkidego gisa bizirautea bermatzeko.

d.- Negoziazio hutsaren estrategiatik nazio eraikitzearen strategiara igaro zen ezker abertzalea: KAS alternatibatik Alternatiba Demokratikora. Gizarte, kultura eta politika arloko sektore guztiei irekitako nazio prozesu demokratiko baten beharrak indarra hartu zuen. Bide batez, negoziazio ereduak aldatu zen.

Beraz, prozesuaren xedea gure herriaren nahiak gauzatzea eta bideratzea izan zen. Orduz geroztik, gure herriaren esku geratuko da Estatu espainolarekin eta frantsesarekin hitz egitea, herri gisa, nazio gisa.

Horrenbestez, estatuei euskal herritarren erabakia onartzea eta prozesu baketsu eta demokratikoaren emaitza erresapetatzea zegokien. Zoritxarrez, Estatu espainolak Alternatiba Demokratikoaren bake proposamena kriminalizatu nahi izan zuen, eta Herri Batasuneko Mahai Nazionala kartzeleratu zuen. Halere, ez zuen hartutako erabakiak aldaraztea lortu, eta erabaki horiek uzta oparoa izango dute ondoko urteetan.

1.4.- 1998: autonomismoaren agorpena. Estrategia berriaren lorpena

Lizarra-Garazi Alternatiba Demokratikoak marraztutako prozesua abiarazteko saiakera izan zen.

Hark guztiak luzerako eta sakaneko ondorio politikoak izan zituen gure herrian. Gure arazo politiko, ekonomiko edota kulturalak gainditzeko zatiketaren eta autonomiaren baliogabetasuna egiaztatu zuen, behin betiko.

Nazio zein gizarte eraikuntzan egindako lanak aldaketarako herri masa kritikoa egituratzea lortu zuela egiaztatu zuen; beste eremu batzuen artean, sindikalgintzan (ELA eta LABen arteko elkarlana), euskalgintzan (Kontseiluaren dinamika eta Bai Euskari Akordioa), hezkuntzan (Euskal Unibertsitatea) eta kirolean (ESAIT eta nazio selekzioen aldeko borroka).

Inoiz ez bezala, gure herriaren mapa, zazpi herrialdeekin, ikusarazi zuen. Udalbiltzaren jaiotza izan zen ibilbide honetan eginiko urratsarik garrantzitsuenak.

Estatuekin hitz egiteko nazio mailako mintzakidetzak demokratiko baten indarra eta aukerak egiaztatu zituen. Lizarra-Garaziko partaideen esku geratu ziren nazio eta herri interesak estatuekin negoziazio prozesu bat bideratzeko, betiere oinarri garbi baten pean: Euskal Herriak du hitza eta erabakia.

Azken batean, 1994an erabakitako irizpideei jarraituz bideratutako strategiaren berrantolaketa hauspoa emateko eta sendotzeko baliagarria izan zen.

Izan zuen, hala ere, ondorio txarrik ere. EAJk eta EAK su-etenaren amaieran ardura gorena izan arren, ezker abertzaleak larrutik ordaindu zuen egoera berria. 2001ko hauteskundeetako emaitza kaskarrei Batasuna prozesuaren amaierako arazoak gehitu zitzaizkien (Aralarren zatiketa eta AB osoak bat egin ez izana). Krisi garrantzitsua izan zuen ezker abertzaleak eta, horrenbestez, eszenatoki politikoan eragiteko gaitasuna murriztua ikusi zuen denbora tarte batez.

1.5.- Estatu espainolaren erantzuna: Errepresioa eta ilegalizazioa

1998ko prozesuak larritasuna sortu zuen bi estatuetan, maila ezberdinean izan arren.

Estatu espainola hasiera-hasieratik ohartu zen prozesu horrek agertarazten zuenaz: trantsizioan lotutako ereduaren porrota. Arrisku bizian jartzen zuen “España” deritzan proiektua. Beste behin ere, eztabaida politikoaren eta kulturalaren erdigune bilakatu zen azken mendeetan Estatuan behin eta berriz errepikatu den galdera: zer da Espainia?

Gaur egungo marko politikoaren krisiaren azkartze horren eta, Lizarra-Garaziko Hitzarmenaren hausturaren ostean, ezker abertzaleak pairatutako ahultzearen eraginez, Estatu espainolak are eta bortitzago ekin zion zapalkuntzari, ezker abertzaleko antolakundeak legez kanpo utziz eta milaka lagunentzat salbuespen egoera eta apartheid politikoa indarrean jarritz.

Ilegalizazioa gauzatu zenetik bi urte igaro ondoren, eta nahiz eta apartheid politikoa eragindako arazoak bistakoak izan, argi bezain ozen esan dezake ezker abertzaleak estrategia horri aurre egin diola. Garaitu egin duela. Aurrera egin baitu, eraikuntza nazionalaren alde, Udalbiltzaren garapenaren alde. Aurrera egin du bere burua nazio mailan egituratuz, ilegalizazioari aurre eginez eta baita, Ibarretxe Plana dela-eta, autonomiazaleen amarruei erantzunez ere.

Ez da kasualitatea EAJk egoera aprobeztatu nahi izana Ibarretxe Plana aurkezteko, Euskal Herri osoan marko politikoari buruz irekitako eztabaida zapuzteko eta, aldi berean, ilegalizazioaz baliatuz, Batasuna ahultzeko.

EAJk jakin badaki, ondo jakin ere, 25 urte igaro ostean ezin dezakeela Estatutua aldarrikatu, ezin daitekeela harro egon. Horregatik, hain zuzen, aurkeztu du beste estatutu bat; oraingoan, ezker abertzaleak defenditutako oinarritzko aldarrikapenak (Euskal Herria, autodeterminazioa eta herri galdera) jasotzen dituen hitzurre batez jantzirik.

1.6. Estatu frantsesaren erantzuna : mespretxua

Nazio estrategia egituratzeko apustuak bat egin zuen Ipar Euskal Herriak politikan eta gizartean, inoiz ez bezala, izandako berpiztearekin.

Departamendua, euskararen ofizialtasuna, unibertsitatea eta Laborantza Ganberaren aldarrikapenek zalantzan jarri dute estatus politikoa Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Berezko instituzionalizazioaren beharra eta, etorkizunari begira, Euskal Herri osoari lotzeko beharra gero eta gardenago agertzen zaizkigu.

Horregatik, preseski, Estatu frantsesa ez da jada Madrilgo errepresio jardueraren laguntzaile hutsa. Euskal Herriaren kontrako errepresioaren eragile zuzen-zuzena bihurtu da.

Euskaldunon borondatea mespretxatzea, euskal aldarrikapenei iseka egitea, horixek dira bere jokabidearen ezaugarriak.

2.-EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA: ALDAKETA POLITIKOAREN GARAIA

Hiru faktore nagusik zehazten dute Euskal Herriko gaur egungo egoera:

2.1.- Euskal Herri osoan, estatus politiko ezberdinen krisia

Krisiak egungo estatu ereduaren agorpena, indar ezberdinekin bada ere, eragin du. Bai eredu espainiarrean baita frantsesean ere.

Lehenengoari dagokionez, Konstituzioaren erreforma eta etorkizuneko autonomi ereduak dira eztabaidagai. Arrazoi nagusi bakarra dago eztabaida horren zergaitia ulertzeko: trantsizio ereduaren porrota eta, hitza eta erabakia berreskuratzeko, Euskal Herriak hasitako prozesua.

Bestelako arrazoirik aipatuko dute –dela Europa, dela monarkiaren ondorengotza–, baina horiek guztiak aitzakia hutsak dira, eztabaida 1978ko konstituzio eztabaidaren jarraipen naturala dela irudikatzen.

Ezker abertzalearen eta, oro har, Euskal Herriaren garaipen politiko nagusia ezkutatu eta desitxuratu behar dute, kosta ahala kosta, aurrekari zinez arriskutsua baita botere faktiko eta Estatuaren kudeatzaileentzat.

Horrenbestez, erreforma euren proiekturako ahalik eta galera txikienekin egiten saiatuko dira. Baina, ez dute helburua lortuko ezker abertzaleak bere estrategiari tinko eusten badio, eta argitasun osoz gatazkaren gakoa plazaratzen badu: Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea onartuz eraiki daiteke soilik konponbidea.

Tamaina apalagoan, Estatu frantsesean ere marko politikoari buruzko eztabaida piztu da. Deszentralizazioa, Korsikaren gaineko Matignongo akordioak eta kolonia izandako lurraldeetan zabaldutako aldarrikapenek eta egindako erreferendumez horixe erakusten dute. Edonola ere, aldaketa politikoaren eskaera nagusi da gaur egun administrazio frantsespeko euskal lurraldeetan.

2.2.- Euskal Herriaren etorkizunari buruzko eztabaida: Proposamenen ugaritzea

Zehaztapenak zehaztaperen, proposamen guztiek -maila eta indar ezberdinez bada ere- egungo status politikoaren aldaketa proposatzen dute: Departamendua dela, berezko instituzioa, federalismoa, elkartasun askeko estatusa, independentzia...

Estatuak ez ezik indar politikoek ere status politikoaren aldaketa egin egingo dela jakin badakitenez, marko berrien eta egungoa gainditzeko proposamenen enkante modukoa ikusten ari gara.

Orain arte, ezker abertzaleak baizik ez zuen plazaratzen marko politikoa sakon aldatzeko beharra. Gaur, berriz, Estatutua eta lurralde zatiketa defendatzen zutenak ezker abertzalearen borroka eragindako egoera berrira egokitzen saiatzen ari dira.

Proposamen bakoitzaren mamiaz eta bestelako kontuez gain, funtsezko irakurketa politiko bat egin behar da: ia inork, ezta PSOEek ere, ez duela egungo statusa bere horretan eta inongo aldaketarik gabe defendatzen. Era berean, frantses errepublikar porrokatuenek ere ezin diezaioke Estatuak Euskal Herriko aldarrikapenei egiten dien mespretxuari oneritzia agertu.

Irakurketa honekin, besterik gabe, ezker abertzalea bere garaipen politikoaren tamainaz jabetu daiteke.

2.3.- Herri kontsulta eztabaida politikoaren ardatza

Marko politikoei zilegitasuna emateko, egun edo etorkizunean, herriari galdetu behar zaiola nagusitzea funtsezko gakoa dugu.

Luzaz eta etenik gabe ezker abertzaleak utsitako aldarrikapena gero eta indar handiagoa hartzeaz gain, Euskal Herriaren etorkizun hurbilerako giltzarri bilakatu da eta horrela agertzen ari da aipatu proposamen ezberdinetan.

Euskal Herritarrek, eta ez beste inork, erabaki behar dute oraina eta geroa, herritarrei zuzenean galdetuz.

3.- BAKEA DA ORAIN LEHENTASUNA

Egungo egoerak (estatus politikoen krisiak, proposamenen ugaltzea, herri kontsultaren beharra) baldintza berriak sortu ditu gatazka konpontzeko egin beharreko apustuari begira.

Gatazka konpontzeko ahaleginek badute, gainera, aurretik jakina den abantaila politikoa: herri nahiari erantzuten diote.

Alderdi ezberdinetako zuzendaritzek bake prozesuaren aurrean nahi adina oztopo jartzen badituzte ere, garbi dago alderdi guztiei boza ematen dietenen artean bake eta konponketa nahia erabatekoak direla.

Hau honela, ezker abertzalearen ardura da gatazka politiko eta armatua kaletik atera eta konponbide mahaira eramatea.

Helburu hau betetzeko oztopo gerta daitezkeen faktoreak gainditzeko konpromiso sendoa behar da guztien partetik. BATASUNAK konpromiso hori berretsi nahi du eta, beraz, bere ahalegin eta bitartekoak erabiltzeko prest dago oztopo horiek guztiak gainditze bidean jartzeko.

Iraganeko estatus guztiek aski frogatu dute gatazkaren iturri amaigabeak bilakatzen direla. Aldiz, akordioan eta eskubide guztien ezagutzan oinarritutako aldaketa politikoa eta bakea dakartza bere baitan.

Beraz, iraganeko errezetak alboratu eta formula berriak aurkitu behar dira. Eta, formula berri hauek aurkitzeko ahaleginean, elkarrizketa da erabili beharreko tresna eraginkorra.

Eragileen arteko elkarrizketa politikoan oinarritutako akordioak status politiko berri bat ekarriko du. Akordioa eraginkorra izan dadin, nahitaez, herritarrei galdetzea ezinbestekoa da. Eta herri kontsulta horren ondorioak bermatzeko konpromisoa alde anitzekoa izan behar du.

Prozesu honetarako BATASUNAK bere prestutasun osoa azaldu nahi du, aurretik aitortuz inork ez duela egia osoa eta eraiki behar den akordioa guztiena izango bada, alde guztiek egin beharko ditugula kontzesioak.

4.- GATAZKAREN KONPONBIDERAKO OINARRIAK: ELKARRIZKETA ETA AKORDIOA

4.1.- Gatazka gainditzeko elkarrizketa prozesua behar da

Gatazka gainditzeko ahaleginak prozesu baten izaera duela ondorioztatzen du BATASUNAK. Ezin da gainditu egun batetik bestera, ez dago laburbiderik. Bakea eraikitzeak prozesu oso bat, globala eta alde anitzekoa, martxan jartzea eskatzen du, presarik gabe eta seriotasun osoz garatua.

4.2.- Elkarrizketa prozesuaren helburua

Prozesu honen helburua gatazka politiko eta armatua gainditu eta Euskal Herria eta euskal herritar guztien eskubide ororen errespetuan oinarritutako eskenatokia ahalbideratzea da.

5.- BATASUNAREN KONPROMISOAK GATAZKA KONPONTZEKO ELKARRIZKETA PROZESUARI BEGIRA

BATASUNAK elkarrizketa ezinbesteko tresna dela aldarrikatu nahi du, gatazkari irtenbide demokratikoa eta adostua emateko. Ordea, elkarrizketa aldarrikatzea soilik ez da nahikoa; elkarrizketan parte hartzaileek bete beharreko konpromisoak ere planteatzea ezinbestekoa da, guztien borondatea argi eta garbi erakuste aldera.

Honela, BATASUNA prest dago jarraian aipatzen diren konpromisoak betetzeko eta hori bera eskatzen die gainerako eragileei:

1.-Gatazkaren sustraietara jo eta gatazkaren iturburuei irtenbide demokratikoa aurkitzeko konpromisoa hartzen du.

2.-Euskal herritar guztiek dute galdetuak izateko eskubidea eta, beraz, egungo edota etorkizuneko estatus politikoak euskal herritarren oniritzia behar dute. Euskal herritarren hitza errespetatzeko konpromisoa hartzen du.

3.-Euskal herritarren hitz ematea era baketsu eta demokratikoan izan dadin behar diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du.

4.-Eraiki beharreko akordioak, Euskal Herriaren historia eta errealitatea kontuan hartuz, sentsibilitate politiko ezberdinen atxikimendu eta errespetua lor dezan konpromisoa hartzen du.

5.-Elkarrizketa prozesuan ematen diren ezberdintasunak, inposaketarik gabe, era baketsu eta demokratikoan konpontzeko konpromisoa hartzen du.

6.-Esklusiboki bide politiko eta demokratikoen erabilerak, proiektu politiko guztiak, muga eta murrizketarik gabe, gauzatzeko aukera ekar dezan konpromisoa hartzen du.

7.-Euskal Herrian eraiki beharreko akordioan Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta ONUren Eskubide Zibil, Politiko eta Ekonomikoen itunak txertatzeko konpromisoa hartzen du.

6.- BI AKORDIOTAN OINARRITUTAKO KONPONBIDE PROZESUA

Gatazkaren konponketari dagokionez, BATASUNAK bi akordio edo hitzarmenetan oinarritutako prozesua planteatzen du:

6.1.-Euskal Herriko eragileen arteko akordioa

Euskal Herriko eragileen artean adostu beharrekoa:

-Euskal Herriaren gaur egungo egoeratik abiatuta, euskal herritarrek libre eta demokratikoki hautatuko duten edozein egituraketa posible egingo duen egoera batetara iristeko ibilbidearen inguruan.

-Euskal Herriko eragileen arteko akordioak, ezinbestean, euskal herritarren onespina behar du.

-Hitzarmenaren sinatzaileek Euskal Herriko mintzakidetza osatuko lukete, akordioa errespetatua izan dadin estatuekin jorratu beharreko negoziatioari begira.

6.2.- ETA-Estatu espainiar zein frantziarraren arteko akordioa

ETA erakundea eta Estatu espainiar zein frantziarren artean adostu beharrekoa:

- Desmilitarizazioa.
- Preso eta iheslariak.
- Biktimak.

Batasunak, Euskal Herrian 2004ko Azaroaren 14an